

NARDAGARRIA AINGERU EPALZA

Jenerala bertze mundura joan zitzaigunetik herri honetan izan den hauteskunde kanpainarik zikinen eta bidega-beenaren lekuko izateko parada izan dugu azken asteetan. Jakin bagenekien herritarrek paper hori ditxosozko kutxatxoan paratu aintzineko egunak ez zirela egokienak deusetaz eztabaida lasairik izateko. Jakin bagenekien hauteskunde giroak ahoberoagan bilakatzen dituela politikoak, errealitateaz eta egiaz ahanzkorrago. Boto-emaileak erakarri beharrak erridikulua izaki, beren mingainak parabisu zerutiar zein inpernu latz bilaka dezakeela egoerik aurruntena, hitsena... Eta hainbertzenarekin ere, gure harridura eta gure narda aitortu baizik ez dugu une hauetan, marka guziak hautsi baitituzte gure politiko eta sasi-politikoek hondar bihiru asteetan.

Hemen ez da programarik eztabaidatu. Hemen ez da arrazoirik erakutsi. Hemen oihu baizik ez da jo, mehatxatu, gezurtu eta, makurragoa dena, norbere ideiei eta konbentzimendu sakonei irutzur egin, sinesten ez den papera jokatuz bere buruaz ase senditzen den antzezle txarraren gisa.

Jakina, autobiak ari gara. Nola ez! Hemen, Nafarroan bederen, autobia izan baita hauteskunde-gai bakarra. Uste genuen, uste, gure problemenez zerrenda luze egin litekeela, ikuspegi aber-tzale zein espainolista batetik. Baina ez, hemengo politikoen hitzei kondu

eman behar badiegu, gure arazo gu-ziak bide madarikatu horren galbehetik pasatzen dira.

Autobia. Gure panazea. Hego Euskal Herriaren batasuna segurtaturik geldituko da bide horren bitartez. Nafarroako (Euskadiko) garapenaren ikurra. Europa. Herri Batasunari botuak-kentzeko tresna egokia.

Autobia. Mamu beltza. Casus belli. Herri eta Ingurugiroaren hondatzaile. Euskal Herriak ekologia mailan duen arrisku nagusia. Alderdi erreformistei botuak kentzeko tresna egokia.

Orain aipatu guzti horietan, bi ahapal-dietako azken esaldiak baizik ez dira egiak. Gainerakoak eztabaidagarri ditugu kasurik hoberenean. Komunikabi-deak hobetuko baditu ere, ez dugu uste, ez dugu uste izaten ahal. Hego Euskal Herriaren batasunerako hain munta haundikoa denik, ezta gure etorkizun ekonomikoa kolokan jar lezakeenik bide horren ez egiteak. Bertzaldean ere, argi dago eskualde haundi baten ingurugiroa lardaskaturik geldi daitekeela autobiaren ondorioz. Alabaina, iragarriak dauden bertze proiektu batzuek - Itoitz, Aritzarte, Gongora, Aldudeko bidea, Belateko tunela, gure herri-ritik zenbait metrotara ezarri nahi duten Ucq.Serrablo gasbidea, mendi-pistak...- Inguru beretsuetan zein oihartzun apala duen egiaztatuak mesfidati bilakatzen gaitu, arront.

ETAk fabore kaxkarra egin zien autobiaren aurka mugitzen diren egiazko ekologizaleei beren komunikatu fama-tua plazaratu zuenean. Senditzen ez duen kausa baten banderazain bilakatuak uxatu egin ditu, ederki uxatu ere, autobiaren kontra egonda ere, borroka armatua arbuaitzen dutenak. Izan da gelditu denik ere, baina maniobrarako kapazitateaz arrontetik gabetua jadanik militarizatu den egoera baten aitzinean. Koordinadorakoek jakinen dute zertako ez zuten erakunde armatua antzarrak ferratzera igorri inork eskatu gabe bere mehatxua agertu zuelarik (Uzarraldeko ekologistek egin duten bezala). Haiek jakin ala jakin gabe, "guri ez dagokigula" erran zuten egunean mugimenduarien harakiri soziala egiten ari ziren hain segur ere.

Gehiago ere ekarri baitu komunikatu horrek, mugimendu horren kriminalizazioa hain juxtu. Perspektiba puska battez ikusirik, erran liteke autobiaren aldeko indar politikoak esperoan zeudekeela honelako agerpenik jalgitzen ote zen. Ekologizaleen aurkako erreakzioa histerikoa ezezik, zurikeriaz eta oportunistorik zikinenaz kutsaturik ere egon baita. Harrigarriki, jokamolde honek bakoitzaren identitatea ere galtzera eraman ditu, alderdi guziak norbere nortasunaz jelotien agertzen direneko hauteskunde garaian. Oraindik ere, baina inguru hertsiaigoetan, euskaltzaleekin gertatzen den bezala -eta ezker abertzale "kontsekuentea" ere ez da

pekatutik libro- autobiaren aurkakoa / terrorista binomioa plazaratzen ez dira luzatu alderdi politiko zein instituzioak.

Batzuei eta bertzeei botuak kendu nahirik, hauteskunde arma gisa auzi honetaz egin den manipulazioa guzti honen ondorioa izan da. Hau, behar bada, barkagarria liteke giza-bizirik tarteko ez balitz, baina ez oraingoan. Denendako, zer hobeagorik atentatu bat baino? Batzuendako delako erakunde armatu horren inplikazioa egiazkoa dela "borroka herriko" honetan. **"Abi-satu genian!"**. Bertzeendako, haragi fresko-freskoa bertzeen aurpegia jaurtikitzeko. **"Erran genian!"**.

Zinez gauza "loriatsuak" ere ikusi ahal izan ditugu egunotan. Behiala autobiaren aldekoak ziren batzuk ezezkoekin -armatuekin nahiz arma-gabeekin- lerrokatu dira agindu ahotsa aditu bezain agudo. Alde guzietan errepikatu digute. Baina nehon ere irakurri ez duguna zera da, Garcia de Diosen lehen proiektua atera zuenean, orduan diputazioburu zen Del Burgo jauna izan zela gibelera botatzeaz arduratu zena. Gipuzkoako haizeak Nafarroarendako kaltegarriegiak zirelakoan. Alabaina, ahalkerik erakutsi gabe agertu zen Leitzan Del Burgo jauna, bertze "bakezalekin" batean argazkian bere burua ateratzeko aukera ez galtzearen.

Gehiagorik izan da. Urralburuk Zaragozan **"ez zuela uste ETAk Itoizko pantanuarien aurka atentaturik burutu-**

ko zuenik" jaurti zuen hitzetik hortzera, nehork galdegin ez ziola. Lapsus bat? Ez, gizon argia eta ikasia da Urralburu. Ezpairik gabe, kazetari ustekabetuei ez, baina metrailetadunei mintzatzen ari zitzaien jaun presidentea autobiari egindakoaren antzeko mehatxuren bat eginen ote zuten Itoizkoarekin. Hor ere, bertze mugimendu baten kriminalizazioa bilatzen zen garbiki "arrazoia-

ren indarra". Inposatu ahal izateko. Zorionez, edo ETAk ez zuen amua irentsi edo enteratu ere ez zen egin.

Eta hala doazkigu kontuak. Agian, kanpainaren isiltzearekin urak beren baitara itzuliko dira eta guzti honetaz behin bezala mintzatzen ahalko. Eskarmentu haundiegia dugu, ordea, horretarako esperantzarik fitsena ere izateko.